

Extrema-dura erradikala

IRIA EPALZA MARKOARTU
Alkartasuna Fundazioko kidea

Gaztetan Piperrak taldearen “Gora Sartaguda, gora gora Sartaguda. Siempre extrema y dura, siempre radical” abesten genuenok, ez genuen uste 34 urteren ostean, lelo hori berriro etorriko zitzaigunik burura albisteak entzutean... eta bai, Extrema y Dura izan da Extremadurako gobernu akordioa. Radikal, hartu dituzten neurriak, baina erradikalki xenofoboak.

2026ko irailetik aurrera, ez da arabiar klaserik emango eskoletan. Atzerritik etorritako adin txikikoentzako zentro berririk ez da eraikiko, eta jada daudenetako plazak murriztuko dira. Espainiari legez onartzea dagozkion migratuen zerrendari uko egingo diote. Migrazioa sustatzen duten GKEei diru-laguntzak etengo dizkiete. Sindikatuen diru-laguntzak erdira jaitziko dituzte. Garapenerako lankidetzarako funtsa gutxienekora uzkurtuko dute. Europak ezartzen duen agenda berdeari planto egingo diote. Zerrendak infernua ere leku atseginagoa bilakatzen du. Extrema y Dura... benetan be!

Eta agian radikalena zera da – Trumpismo galanta, bestalde-: Milioi bat pasatxo biztanle dituen Extremadurak (1.055.197 urte hasieran) nazionaltasuna lehenetsiko duela hemendik aurrera. Horrela adostu ei dute Gobernukide izango diren bi ultra-eskubiko alderdiek. Arazoak arazo, arreta instituzionala lehenbizi nazional direnei eskainiko zaie, eta gero sobrea bada, besteei.

Zer zentzu dauka “prioridad nacional” delako horrek mugan bizi den lurralde batentzako? Ez ahaztu Badajoz hiriak berak Portugalekin muga egiten duela. Baina ai, mugaz bestaldekoentzat ezer, eta 850 kilometrotara dagoen zaragozar anaiari prioridade nazionala emango diogu, oso osorik! Muga naturala egiten duen Guadiana ibaia ere lotsatuta izkutatu egiten da.

Eta nortzuk dira ba besteak? Estatistiken arabera, egun Extremaduran bizi diren %4,1a besterik ez – 43.263 lagun; Espainiako kanpotar tasa baxuena duen probintzia- gehienak Maroko eta Venezuelatik etorriak, nekazaritza sektorean lan egitera. 43000 lagun, Extremaduran bizi, hezi eta lan egiten dutenak, bertako demografia arazo latzari konponbidea ekarri diotenak, bertako lurraldeak landu eta lurra zaintzen dutenak, bertako bizitza aurrera ateratzen laguntzen duten lagunak, bertakotzat onartzen ez dituztenak.

Badirudi Extremadurak sekulako inmigrazio arazoa duela gainean, baina Extremadura zerbait bada, extrema eta dura izateaz gain, emigrazio herri ere bada. Amerikak “konkistatu” zituzten Francisco Pizarro eta Hernan Cortesetik hasita (azken hau *bertako* batekin enamoratua!) egun Euskal autonomia erkidegoan ditugun 17 centro extremeñoetako 75.000 kideetaraino. Espainian barreiatuta, 750.000 mila dira. Eta askoz gehiago Frantzia, Alemania eta Suitzara bizitza hobearen bila joandakoak. 1960tik 1975era, Gobernukide diren bi alderdiek goستن duten frankismo garaiko “desarrollismo” betean (edo guda zibileko galtzaileek pairatu zuten errepresio ankerrean) , biztanleriaren %40ak alde egin zuen bertatik. Eta bertakoak, gutxi, barkatuak, eta zahartzen doaz. Bertakotu direnei esker oster, lurra lantzen jarraitze dute, piramidea gaztetu egin da, eta demografia arazoa lausotu.

Ederra litzateke bestekotuak izan ez ziren 75000 euskal extremeño horiek, udako oporrak probestu eta Extremadurara bidaia egitea. Ahaideak agurtu, arbasoen lurra sentitu, eta batez ere gobernukideekin hizketaldi luzea edukitzeko. Argi adierazteko nekez uzten duela sorterría sustraiak han dituenak, baina nekez ereindako lur berriek ematen dutela lorea ere, egoki ureztatuak badira. Eta horrela, bertakoentzako egindako gobernu berri honek fruituak jaso nahiko balitu, ito baino, sustrai berriak ondo eutsi eta elikatu beharko lituzkela; hori bai delako errotzea, hori bait delako erradikala izatea.

2026/04/24